



nare

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA
PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA
DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

2025eko urtarrilaren 31tik otsailaren 3ra

JARRAIPEN- BISITA TEKNIKOA

NIKARAGUAKO ERBESTEA COSTA RICAN
ETA GIZA ESKUBIDEEN EGOERA
NIKARAGUAN

2025eko apirila



En el corazón de la resistencia nicaragüense

NIKARAGUAKO ERRESISTENTZIAREN BIHOTZEAN

"Itzaropena banakako apustua da, eta kolektiboki baino ezin da elikatu"

"Axola duena jendearen duintasuna da, eta basakeria ez naturalizatzea"

***"Itzaropenak, etorkizunean ez ezik, eraiki nahi dugun orainean ere egon
behar du"***

Palabras de las personas presentes en el encuentro con organizaciones en el exilio.

Txostenaren egilea:





Edukien aurkibidea

1	Euskal Ordezkaritzaren osaera	1
2	Jarraipen-bisita teknikoaren planteamendua	2
3	Garatutako agenda	4
4	Eskertzak	5
5	Gizarte-erakundeek eta -mugimenduek partekatzen duten testuinguru orokorra	6
6	Ordezkaritzaren kezka nagusiak eta konpromisoak	15
7	Erreferentziak	17

1 EUSKAL ORDEZKARITZAREN OSAERA

EUSKO JAURLARITZA

Jagoba Álvarez Ereño, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako zuzendaria.

Nerea Cambra Becerril, gizarte-langilea, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritza.

Maite Garmendia Eguinoa, lankidetzako teknikaria, eLankidetzak-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

LANKIDETZARAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO ANTOLAKUNDEAK

Javier Canivell Fradua, zuzendaria, Zehar-Errefuxiatuekin elkarte.

Leire Lasa Fernández, NAREko koordinatzailea, Zehar-Errefuxiatuekin elkarte.

2 JARRAIPEN-BISITA TEKNIKOAREN PLANTEAMENDUA

NARE - Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa **elkartasun politikoa adierazteko tresna** da, eta giza eskubideen alde egiten duten lana dela-eta jazarpen- eta mehatxu-testuinguruetan lan egiten duten pertsonak eta kolektiboak **babesten laguntzea** du helburu. Lankidetzan eta elkartasunean diharduten EAEko erakundeen lanaren tresna osagarri bat da.

Babesa ANSUR kolektiboak definitzen duen moduan ulertzen dugu: pertsonak, erakundeak eta instituzioek bizitzeko eta lanerako espazio segurua sortzeko eta zabaltzeko garatzen dugun ekintza-multzoa da. Osotasun fisikoaren, digitalaren, emozionalaren edo espiritualaren aurkako mehatxu posibleei aurre egiteko hainbat estrategia biltzen ditu, bai indibidualak, bai kolektiboak. Beraz, babesa ez da mehatxurik eza bakarrik; pertsonen, komunitateen eta kolektiboen ongizatea ere bada, bere alderdi guztiak kontuan hartuta.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzak gidatzen du NARE, eLankidetzan-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntza dauka, eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundearen koordinazio teknikoak. NAREn, halaber, EHuko eta Deustuko Unibertsitateko institutu akademikoak, lankidetzaren eta giza eskubideen EAEko erakundeak eta Eusko Legebiltzarrak parte hartzen dute.

NAREn parte hartu duten giza eskubideen defendatzaileak eta kolektiboak babesteko sarea indartzeko, urtero jarraipen-bisita bat egiten da lekuan bertan.

Nikaraguako egoera kontuan hartuta, eta NAREk arautzen dituen malgutasun-printzipioei jarraikiz, gure ekintzak giza eskubideen defendatzaileak bizi dituzten testuinguru eta egoera desberdinetara egokitzea ahalbidetzen baitute, Nikaraguako Gazte Plataforma Nazionalaren (PNJ) jarraipena egitea planteatzen dugu, NAREn parte hartzen duen kolektiboa baita. Horretarako, bisita teknikoak egingo dugu Costa Ricara, kide batzuk eta Nikaraguako beste erakunde eta kolektibo batzuk erbestera ziren herrialdea.

Gazteen mugimendua, mugimendu feminista, kazetaritza kritikoa eta sexu-aniztasunaren defentsa izan dira egindako topaketen ardatz nagusiak eta landutako gai nagusiak. Agenda osatzeko, elkarrizketak egin dira beste babes-erakunde eta -ekimen batzuekin, hala nola Nazioarteko Bake Brigadekin (PBI) edo Acceso fundazioarekin, bai eta Justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aldeko Zentroarekin (CEJIL) ere.

3 GARATUTAKO AGENDA

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak, herritarren mugimenduak eta komunikabideak eta komunikazio-ekimenak:

- Plataforma Nacional Juvenil Nicaragua (PNJ)
- Asociación Feminista La Corriente
- Fundación Sin Límites para el Desarrollo Humano (Sin Límites)
- Centro de Estudios Transdisciplinarios de Centroamérica (CETCAM)
- Liga Feminista de Refugiadas Políticas
- Colectivo de Derechos Humanos Nicaragua Nunca Más
- Divergentes
- Colectivo de Productores Audiovisuales y Artistas Latinoamericanos (COPAL)
- Artículo 66
- Red de Mujeres Pinoleras
- Fundación Arias para la Paz y el Progreso Humano
- Infomedio Nicaragua
- Fundación Popol Na
- Colectiva Feminista Subversivas
- Articulación de Movimientos Sociales de Nicaragua
- Intertextual
- La Mesa Redonda
- Colectiva Feminista Volcánicas
- Movimiento Puente

Babes-antolakunde eta ekimenak:

- Brigadas Internacionales de Paz (PBI Nicaragua)
- Fundación Acceso

Erakunde juridikoak:

- Centro por la Justicia y el Derecho Internacional (CEJIL)

4 ESKERTZAK

Euskal Ordezkaritzako kideok, beste behin ere, gure **BABESA ETA ELKARTASUNA** erakutsi nahi diegu gizarte-erakundeei; izan ere, Nikaraguan eta Costa Ricako erbestean baldintza zailetan egon arren, ez dute itxaropena galtzen, eta energia onenak erabiltzen dituzte Nikaragua libre, justu eta demokratiko bat eraikitzeko. Giza eskubideen eta bizitza duinaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako borroka legitimoa aitortzen dugu. Eskerrik asko Costa Ricako erbestean lan egiten duten giza eskubideen, mugimendu feministaren, sexu-aniztasunaren, gazteen eta kazetarien erakundeei. Eskerrik asko guztioi zuen duintasunagatik eta eskuzabaltasunagatik proposamenak, salaketak, minak eta itxaropenak partekatzerakoan.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nikaraguako Gazte Plataforma Nazionalari (PNJ), bisita hau eragin baitu haren jarraipenak. Nikaraguan eta Costa Rican haien segurtasun- eta babes-egoera bereziki zaintzen dugu.

Egindako topaketa eta bileretan egiaztatu dugunez, gaur egun, giza eskubideen defendatzaileen aurkako jazarpena eta haien aurka egindako indarkerien zigorgabetasuna etengabe gertatzen dira herrialdeko bizitzan, eta nazioz gaindiko irismena dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, Nazioarteko Bake Brigadei (PBI), Acceso fundazioari eta Justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aldeko Zentroari (CEJIL).

5 GIZARTE-ERAKUNDEEK ETA MUGIMENDUEK PARTEKATZEN DUTEN TESTUINGURU OROKORRA

2007az geroztik, Daniel Ortega eta Rosario Murilloren erregimenak jazarpen-politika mailakatua aplikatu die erregimen horrekin kritikoak diren pertsoneri, batez ere giza eskubideen defendatzaileen eta gizarte- eta lankidetzakerakundeen kasuan. Erregimenak espazio zibikoa ixtera bideratutako neurriak hartu ditu, eta jazarpen-modu batzuk ezarri ditu. Adierazpen-, bilera- eta elkartzeko-askatasunaren aurkako erasoak etengabeko mehatxua izan dira.

2018ko apirilko leherketa politiko-soziala Managuako ikasleen protestekin hasi zen, Indio Maíz natura-erreserban gertatutako ingurumen-hondamendiari erantzuteko, eta, egun batzuk geroago, Managuako eta Leongo kaleetara irtetearekin jarraitu zuen, alde bakarreko eta iritzia eskatu gabeko gizarte-segurantzako sistemaren erreformaren aurka protestatzeko. Protestek erregimenaren eta haren larderen, mehatxuen eta oposiziozko isilaraztearen aurkako ondorez sakonagoa erakusten dute.

Estatuaren erantzuna bereziki bortitza izan zen, indar poliziala, talde parapolizialak edo talka-indarrak gehiegikeriaz eta arbitrarioki erabili baitzituzten; besteak beste, Gazteria Sandinistako eta Herritarren Boterearen Kontseiluetako kideak, Estatuko agintarien oniritziarekin eta tolerantziarekin jarduten zutenak. Indarkeriak manifestariekiko (gehienak gazteak) elkartzeko mugimendu bat sortu zuen, eta, horren ondorioz, protestak biztanleriaren beste sektore batzuetara zabaldu ziren. Azkenean, botere-abusuaren, berme demokratikorik ezaren, ustelkeriaren, krisi ekonomikoaren eta presidentearen familiaren eskandaluen aurkako eskaera-plataforma zabal bat egituratu zen. Errepresioaren ondorioz, milaka pertsonak utzi zuten herrialdea nazioarteko babesaren bila. Gaur egun, "aberriaren etsai" gisa estigmatizatuta daude, horietako asko aberrigabe.

2018az geroztik, errepresio-fase desberdinak igaro ditu erregimenak, planifikatuak eta bere beharretara egokituak: izu-egoera bat inposatzea manifestazioen aurka; lurralde-kontrola berreskuratzea "Garbiketa operazioa" deiturikoaren bidez; protestak kriminalizatzea eta atxiloketak, epaiketak eta espetxeratze arbitrarioak; arrazoi politikoengatik askatasunaz gabetuta

dauden pertsonen aurkako tortura eta tratu krudel, anker eta apalesgarriak; giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, feministak, gizarte-liderrak eta erregimenerako oposiziogileak edo halakotzat hartutakoak kanporatzea eta aberrigabetzea; espazio zibikoak ixtea, gizarte zibileko erakundeetako 3.700 pertsona juridiko baino gehiago ezereztu eta haien ondasunak kendu, bai eta hauteskunde-sistema ezabatzea ere.

2018az geroztik, **migrazio-errepresioa** giza eskubideen defendatzaileei, erregimenaren aurkakoei eta, azken hilabeteetan, errepresio politikoaren biktima diren senideei eraso egiteko erabiltzen den mekanismoa da. Hiru modalitatetan adierazten da nagusiki: erbesteratzea, migrazio-atxikpenak eta migrazio-jazarpena. Gehien errepikatu den jardunbideetako bat erbesteratzea izan da, Nikaraguako nazionalitatea duten edo bizilekua duten pertsonen Nikaraguako lurraldean sartzea legez kanpo ukatuta. Kaltetu askok ez dute salaketarik jartzen beren senideen aurkako errepresalien beldur direlako, horiek herrialdean jarraitzen baitute. Egun batetik bestera, familiengandik bananduta geratzen dira eta ezin dira etxera itzuli. Nazionalitatea kentzen zaie (adibidez, pasaporte berri ez dietelako), eta administrazio-linbo batean geratzen dira, prekaritate, zaurgarritasun eta babesgabetasun bereziko egoeran, oro har atzeritarrei eta asiloari buruzko legeek dakartzaten oztopoen aurrean.

2022ko martxoaren 31n, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak, 49/3 Ebazpenaren bidez, Nikaraguari buruzko giza eskubideen hiru adituz osatutako talde bat eratu zuen, urtebeterako, 2018ko apiriletik egindako giza eskubideen ustezko urraketak eta abusuak ikertzeko. Kontseiluak, 52/2 Ebazpenaren bidez, beste bi urtez luzatu zuen agintaldia (2025eko martxoaren 31ra arte).

Nikaraguari buruzko giza eskubideen adituen taldeak (GHREN) egindako txostenean dokumentatu zen gizateriaren aurkako krimenak zeudela, hala nola judizioz kanpoko exekuzioak, atxiloketa arbitrarioak, tortura eta tratu krudel, anker eta apalesgarriak, nazionalitatea arbitrarioki kentzea eta herrialdean bertan geratzeko eskubidea urratzea. 2023ko otsaileko egitateak kontuan hartuta, erregimenak preso politikoaren «*erbesteratzea*» eta aberrigabetzea deklaratu zuenean, eta ehunka pertsonari legezko prozesurik gabe itzultzea eragotzi zienean, ondorioztatu zuen, erregimenak oro har eta sistematikoki egin zituen «*urraketa, abusu eta krimen dokumentatuei*» gehituta, **gizateriaren aurkako jazarpen-krimena** egin zela. 2024ko martxoko txostenean, aurreko tipo penalei eusteaz gain, beste batzuk gehitzen ditu, hala nola deportazioa, espetxeratzea, jazarpena eta tortura, eta horiek egiteagatik erantzukizun pertsonalak eta instituzionalak zehazten ditu.

Giza eskubideen aurkako urraketa larriak, sistematikoak eta orokortuak

GHRENen arabera^[1], "Nikaraguako Gobernuak giza eskubideen urraketa sistematiko larriak egiten jarraitzen du, arrazoi politikoengatik gizateriaren aurkako krimenen parekoak". Nikaraguarrek aurre egin behar diete bizitzeko, osotasun eta segurtasun pertsonalerako, adierazpen-askatasunerako, modu baketsuan biltzeko eta elkartzeko eskubidearen aurkako erasoei eta gehiegikeriei; jabetzak eta pentsioak konfiskatzeari; lurraldetik sartzea edo irtetea ukatzeari; etengabeko jazarpenari, atxiloketa arbitrarioei eta beharrezko bermerik gabe egindako epaiketei, besteak beste.

Urtarrilaren 15ean onartu berri den eta otsailaren 19tik indarrean dagoen Konstituzioaren erreformak ezartzen duenez, "aberriari traizioa egin diotenek Nikaraguako nazionalitatea galtzen dute". Neurri hori orain arte aplikatu da, eta Magna Cartan ez dago indarrean.

Nazio Batuen Erakundeak, Amerikako Estatu Erakundeak (AEE), Ameriketako Estatu Batuek, Europako Parlamentuak eta Nikaraguako oposizioko kideek gogor kritikatu dute erreforma, Ortega-Murillo erregimena indartu baitu. Aberrigabetzea legeztatzeaz gain, lehendakaritza-aldia bost urtetik sei urtera luzatu da, Rosario Murillorentzat "presidentekidearen" figura ezarri da, eta behin betiko ezabatu da botere-banaketa, Gobernuaren koordinaziopeko "organoak" izena hartu baitute. Azkenik, «erreserba patriotikoko indar militarrik» eta «borondatezko polizia» sortu dituzte; oposiziogileen arabera, indar parapolizial eta paramilitarrak izango lirateke.

Horrek guztiak giza eskubideen defendatzaileen eta, oro har, herritarren aurkako giza eskubideen urraketek duten zigorgabetasuna sendotzen du, giza eskubideen eskualdeko eta nazioarteko instantziek salatu duten bezala.

Konstituzioaren erreformak, beraz, erregimen totalitario bat legeztatzea dakar.

[1] OHCHR. 2024ko otsailaren 24a.

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako kriminalizazioa eta jazarpena

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako errepresioa nazioz haraindikoa da, eta Nikaraguako mugetatik harago hedatzen da. Azken sei urteetan, Hondurasera, Argentinara, Mexikora eta Costa Ricara hedatu da.

Nikaraguako nazionalitatea modu arbitrarioan kentzeak, errepresio politikorako tresna gisa, eragin larria du bizi-proiektuetan, pertsonak aberrigabetzera behartuta, eta nazionalitateari datzekion eskubide guztiak kentzen baitizkie, haien ondasunak konfiskatzeaz gain. Erakundeen datuen arabera, 500 pertsona inguruk jasan dute neurri hori, eta muturreko zaurgarritasun-egoeran geratu dira.

Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Mesoamerikako Ekimenaren arabera (IM-Defensoras), 2024an emakumeen aurkako eraso indibidualen goranzko joera agertu zen, hala nola zaintza eta jazarpena, patruila digitalak, lekualdatze behartuak eta migrazio-erreprezioko eredu berriak. Eraso kolektiboak ere erregistratu dira, hala nola estigmatizazio- eta desprestigio-kanpainak ingurune digitaletan, bai eta preso politikoen aurkako tratu krudel, anker eta apalesgarriak jarraitu ere.

Erbesteratutako edo atzerriratutako defendatzaileen aurkako eraso digitalek aurrera jarraitzen dute, salaketa-jarduera mantentzen baitute: egitate faltsuak zabaltzea; defendatzailearen lidergoa, profesionaltasuna edo etika zalantzan jartzea edo zalantzan jartzea; barregarri uztea; eta hitzeko indarkeria edo indarkeria psikologikoa. Eraso horiek erabiltzaile birtual ezezagunek egiten dituzte nagusiki. Hala ere, edukiagatik, susmagarritzat jotzen dira erregimenarekin zerikusia duten pertsonak, eskuin-taldeetako kideak, fundamentalista erlijiosoak eta eskubideen aurkakoak.

Erbesteratutako defendatzaileen, preso politiko ohien eta herrialdean jarraitzen duten defendatzaileen familiek hainbat erasori aurre egiten jarraitzen dute, mugikortasun askerako eskubidea mugatzeko edo haien komunikazioak eta jarduera politikoa kontrolatzeko: polizia-agenteez aldi behin etxera egiten dituzten bisitak, eta txostenak sinatzeko betebeharra, poliziak beren etxebizitzetan daudela baieztatzeke egiten dituen argazkiekin batera. Nortasun-agiriak ez berritzeari ere aurre egin behar diote, eta horrek de facto heriotza zibileko egoeran jartzen ditu, eta beren etxeetan isolatuta egotera behartzen ditu, baita lan egiteko aukerarik gabe ere.

Herrialdean dauden senideen aurkako errepresioa erbestean dauden defendatzaileak isilarazteko modu bat da.

Bizitzari eusteko behar diren baldintza materialei eragiteaz gain, barne-errepresio eta nazioz gaindiko errepresio horrek inpaktu larriak eragiten ditu giza eskubideen defendatzaileen eta haien familien osasun mentalean.

Espazio zibikoaren itxiera

Erakundeak masiboki itxi aurretik, hainbat akusazio egin zituzten erregimenaren aurkako estatu-kolpe bat prestatzen ari zirela esaten, dirua garbitzearekin edo beste lege-eskakizun batzuk ez betetzearekin lotutako beste argudio batzuekin batera.

Nikaraguako erbesteko erakundeek emandako informazioaren arabera, irabazi-asmorik gabeko 5.500 erakunde baino gehiago itxi dira 2018tik, eta haien ondasunak konfiskatu dira. Horietako batzuk Costa Rican birsortu dira, eta egiten ari ziren lanarekin jarraitzen dute, beste baldintza batzuetan bada ere.

Murrizketak adierazpen- eta prentsa-askatasunari

Erakundeek salatzen dute zentsura zorrotza eta murrizketa latza egiten diotela adierazpen- eta prentsa-askatasunari, kazetaritzan jarduteari eta pentsamendu-zentroek ikerketa akademikoak egiteari. Uste dute Nikaraguan ez dagoela prentsa independenterik.

Kazetari kritiko eta independenteak "*aberriaren traidore*" izendatzen dituzte. 2018tik gaur egun arte, 283 kazetari erbestean daude.

Emakumeen aurkako indarkeria

Erakundeen arabera, emakumeak ez dira "*eskubideen subjektu Nikaraguako diktaduran*". Urtetik urtera feminizidioen, sexu-indarkeriaren (20.000 kasu baino gehiago neskato eta nerabeen artean 2019tik 2024ra) eta sexu-osasuneko programa eta zerbitzu integralera sarbiderik ez duten neskatoen eta nerabeen nahigabeko haurdunaldien igoera larria eta kezagarria salatzen dute, abortua egoera guztietan delitua den herrialde batean.

Estatuak ez du betetzen herritarrak babesteko betebeharra, eta egon badago Ortega-Murillo erregimenaren oniritzia eta konplizitatea indarkeriarekin oro har, eta emakumeen aurkako indarkeriarekin bereziki.

Datuak eskuratzeko zailtasunak dituzte, isiltasuna ezarri delako: abusua naturalizatu da, erakunde feministak itxi dira, baita indarkeriaren biktima diren emakumeentzako aterpetxeak ere, emakume feministak eta giza eskubideen defendatzaileak bortxaz lekualdatu dituzte. Baina erresistentzia-formak egon badaude oraindik.

Uste dute beharrezkoa dela begirada geolokalizatua eta ikuspegiak zabaltzea. Sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak eztabaida krudelean daude, diskurtso faxisten erdigunean. Eta ez da soilik eskualdeko errealitate bat, Europako, Amerikako eta Latinoamerikako eskuinek eraso gogorak egiten baitizkiete. Testuinguru globala da.

"Herrialderik parekideena gara. Diktadura parekidea gara. Zaplazteko bat feminismoaren eskaera historiko bati".

LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeriak

Konstituzio Politikoak edozein arrazoirengatiko diskriminazioa debekatzen du, eta 2008ko Zigor Kodeak homosexualitatearen zigorra ezabatu zuen. Hala ere, tresna horien eraginkortasuna ia ezereza da, eta zigorgabetasunean uzten ditu LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeriak. Arau sozialak lege-arauen gainetik daude. Indarkeriaren kultura gorroto-krimenetan islatzen da, eta ez dago horiei buruzko araudi espezifikorik. *"Gure gorputzei eraso egiten diete, gure bizitza eta existentzia ezabatzen saiatzen direlako"*. Ez dago sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko gorroto-krimenen tipifikaziorik; emakume lesbianak, bisexualak eta transexualak desagertuta daude 779 Legean, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako legeria integraltzat hartu zen.

Gainera, nahiz eta Estatuak erakundeak sortu dituen LGTBIQ+ komunitatearen eskubideak zaintzeko, praktikan eginkizun sinboliko hutsa izan da. Sexu Aniztasunaren Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzak, 2009an sortuak, ez du politika publiko eraginkorrik bultzatu, eta ez du esku hartu indarkeria- edo diskriminazio-kasuetan.

Horri independentzia judizialik eza gehitu behar zaio, Nikaraguako giza eskubideak babesteko oztopo gaindiezina. Nazioarteko lankidetzak ahula izaki eta gainbegiratze-mekanismoak gero eta mugatuagoak izanda, herritarrek, oro har, eta emakumeek eta LGTBIQ+ pertsonen, zehazki, gero eta kalteberatasun handiagoa dute.

Nikaraguako LGBTBIQ+ Behatokiaren arabera, 2021etik 2024ra 155 eraso dokumentatu dira. Azken urteetan jakinarazitako kasuen beherakada txikia salatzen da beldurraren eta babes-mekanismoen ezaren ondorio da. Gorroto-krimenak, erasoekin alderatuta gutxiago badira ere, bereziki kezkarriak dira. 2021ean kasu bat jakinarazi zen, baina hurrengo urteetan kopuruak gora egin zuen, alegia, bost kasu 2024an. Gainera, diskriminazioarekin eta gizarte-bazterketarekin lotutako suizidioak indarkeria estruktural horren ondorio tragikoak dira. Trans emakumeak dira kaltetuenak, hots, 85 kasu dokumentatu azken 4 urteetan. Zifra horrek nabarmentzen du emakume horien muturreko kalteberatasun-maila, eta hainbat frontetatik aurre egiten diote indarkeriari: etxeetan, kaleetan eta agintarien aurrean. Ondoren, gizon homosexualak daude, 50 kasuarekin, eta emakume lesbianak, 22 kasuarekin.

Datuak agerian uzten dute indarkeriaren arloko estatu-eragileen konplizitate kezkarria: Polizia Nazionala, talde paramilitarrak eta militarrek ageri dira erasotzaileen artean. Azkenik, erregistratutako kasuen erdiak baino gehiago 20-29 urteko gazteei dagozkie.

Emakumeen eskubideak (bereziki, sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak) defendatzen dituzten erakundeak eta sexu-aniztasunaren aldeko erakundeak ixteak babes-saririk gabe utzi ditu LGBTBIQ+ defendatzaileak, eta areagotu egin du erasoaren aurreko esposizioa.

Costa Rica ohiko helmuga bihurtu da LGBTBIQ+ erbesteratuentzat. Hala ere, erronka esanguratsuei aurre egin behar diete. Baliabide faltari indarkeria eta zigorgabetasuna gehitu behar zaizkio, horiek ere Costa Ricako erbestean baitaude.

Gazteriaren egoera

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) arabera, protestak direla-eta 2019ko apirilaren 18tik uztailaren 31ra bitartean, gutxienez 355 pertsona hil ziren (15 emakume eta 340 gizon). Horietatik 27 haur eta nerabeak ziren. GRHENek azaldu duenez, Nikaraguako gazteak erregimenaren errepresio-aparatuaren lehentasunezko jomuga izan dira.

Bertan behera utzi da gutxienez Nikaraguako eta nazioarteko 37 unibertsitateen eta goi-mailako hezkuntzako erakunde laikoren eta erlijiosoren nortasun juridikoa. Horietako batzuk, hala nola Erdialdeko Amerikako Unibertsitatea edo Nikaraguako Unibertsitate Politeknikoa, ikasleak mobilizatzeko fokua izan ziren, poliziaren errepresioaren aurkako protestetan

eta ikasleen babesean. Bertan pentsamendu kritikoko taldeak biltzen ziren. Harrezkero, erasoek, zelatatzeek eta administrazio-mugek eragin zioten haren funtzionamenduari, eta zuzendariak eta plantilla akademikoak errepresio-ekintzen jomuga izan ziren. Nortasun juridikoa ezereztearen ondoren, bankukontuak eta ondasun higigarri eta higiezinak konfiskatu ziren (1127 Legea)^[2]. Legeriak ezarri zuen Gobernazio Ministerioa zela irabazi-asmorik gabeko erakundeak ezerezteko eskumena zuen erakundea, eta ez zen kontuan Konstituzioaren 138 (5) artikulua Batzar Nazionalaren eskumena dela xedatzen duela. Beraz, Konstituzioaren aurkako erabaki zen.

CIDHen arabera, itxiera horiek 37.000 unibertsitate-ikasleri baino gehiagori eragin zieten zuzenean. Gainera, 2018. eta 2022. urteen artean, 150 kanporatze arbitrario baino gehiago egon ziren, eta espediente akademikoak ezabatu ziren, beraz, ikasketekin jarraitzea edo beste hezkuntza-erakunde batzuetara eramatea eragotzi zen. Testuinguru horretan, hainbat erakundek dokumentatu dute ikasleek, euren erregistro akademikoak lortu ondoren, Nikaraguako Kantzilertzan oztopoak izaten dituztela dokumentu horiek egiaztatzeko, beraz, ezin dute atzerrian ikasten jarraitu.

GHREnek berretsi egin du botere betearazle, legegile eta judizialaren arteko koordinazioa, ikasleen, irakasleen eta unibertsitateko beste langile batzuen eskubideak urratzeko. Nikaraguako unibertsitate-sektoreak jada ez du erakunde independenterik.

Gazte-erakundeek salatu dute Nikaragua berreraikitze behar diren tresnak izango ez dituen belaunaldi bat dagoela.

"Bozkatu ez duen belaunaldia gara. Ez dakigu zer den aukeratzea, ezta hautetsia izatea ere. Eskubide politikorik gabe. Zuzenbide-estatuaren gauzatzea da, zuzenbide-subjektu izateko eta herrialderako zer nahi duzun eta zer ez erabakitze aukera izatekoa."

Nikaraguako erbesteratzearen egoera Costa Rican

Aurreko ataletan garatu dugun bezala, Costa Rican erbesteratutako nikaraguarrek hainbat oztopo dituzte. Hirugarren herrialdeetan atzerritarrei eta asiloari buruzko legeei aurre egiteko konplexutasunaz gain, badaude Ortega-Murillo erregimenak Nikaraguako mugetatik haratago hedatzen dituen jazarpenak eta errepresio-ekintzak ere.

[2] 2022ko abuztuaren 11n onartutako 1127. legeak ezarri zuen Gobernazio Ministerioaren ekimenez baliogabetutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen ondarea Estatuaren alde likidatuko dela.

Migrazio-errepresioa erbesteratutako pertsonen aurkako eraso horiei eusteko erabiltzen den mekanismo bat da: erbesteratzea, aberrigabetzea, legezko prozesurik gabe itzultzeko eragozpena edo "*aberriaren traidore*" deklaratzeko dira adibide horietako batzuk. Halaber, ikasleek espediente akademikoak ezabatzeari edo egiaztatzeak lortzeko ezintasunari ere aurre egin behar diote, eta horrek ikasketak atzerrian jarraitzea eragozten du.

Gainera, Nikaraguan dauden senideen aurkako mehatxuak erbestean dauden giza eskubideen defendatzaileen salaketak eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren eskakizunak isilarazteko tresnak dira.

Hala eta guztiz ere, erakundeek eutsi egin diote eta, ahalegin handiz, lortu dute Costa Rican birsortzea eta giza eskubideen eta Nikaragua aske eta demokratiko baten aldeko lana antolatzea.

6 ORDEZKARITZAREN KEZKA NAGUSIAK ETA KONPROMISOAK

Euskal Ordezkaritzak, topaketa eta elkarrizketen bitartez, egiaztatu ahal izan du Nikaraguan giza eskubideak, demokrazia eta justizia defendatzeagatik herrialdetik irten eta Costa Rican babesa bilatu behar izan dutenen egoera zaila dela. Askok debekatuta dute herrialdera sartzea, eta erbesterako bidea hartu behar izan dute, eta migrazio-oztopoak eta errefuxiatua dela aitortzen duen estatutua eskuratzeko oztopoak dituzte. Nazio Batuen Iheslarietarako Goi Ordezkararen (ACNUR) datuen arabera, GHREnek aipatuta, "2018 eta 2023ko ekaina bitartean, 935.065 pertsonak, ia milioi bat pertsonak, alde egin zuten Nikaragutatik" (zortzi nikaraguarretik batek), errepresio politikoaren, pobrezia eta enplegu faltaren ondorioz; eta 440.000 pertsonak baino gehiagok eskatu dute asiloa mundu mailan, horietako batzuek Euskadin.

Hala, egindako bilerak, jasotako azterketak eta testigantzak eta aldez aurretik aztertutako dokumentazioa kontuan izanda, Euskal Ordezkaritzak **KEZKA** adierazi du honako honengatik:

- Nikaraguarrek, oro har, eta giza eskubideen defendatzaileek, bereziki, jasaten dituzten giza eskubideen urraketa larri, sistematisa eta orokortuak.
- Neskatoen, emakumeen eta LGTBQ+ populazioaren aurkako indarkeriak, bai eta abortatzeko eskubidea kausa guztietan zigortzea ere, Torturaren aurkako Konbentzioaren arabera Nikaraguak hartutako betebeharrak urratzen dituztenak.
- Zentsura zorrotza eta murrizketa latza adierazpen- eta prentsa-askatasunari, kazetaritzan jarduteari eta pentsamendu-zentroek ikerketa akademikoak egiteari.
- Nikaraguako giza eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa eta etengabeko jazarpena.
- Errepresioa nazioz gairikoa da bizitza babesteko erbesterara behartuta dauden giza eskubideen defendatzaileen aurka, eta jazarpena barruan dauden senideei zuzentzen zaie.

- Mehatxu-testuinguru iraunkor batean, herrialdearen barruan eta kanpoan bizitzeak osasun fisikoan eta emozionalean dituen inpaktu larriak.
- Nikaraguako nazionalitatea arbitrarioki kentzea, errepresio politikorako tresna gisa.
- Espazio zibikoaren itxiera osoa.
- Gazteek kalitatezko hezkuntza eskuratzeko aukera mugatua izatea, herritartasun kritikoa sortzea mugatzeko tresna gisa; eta jasandako errepresio larria.
- Txosten honetan azaldutako indarkeria guztien zigorgabetasuna.
- Azkenik, Konstituzioaren azken erreformak erregimen totalitario bat legezkatzea dakar.

Egoera horren aurrean, Euskal Ordezkaritzak bere **KONPROMISOA** adierazi du Giza Eskubideen defentsarekin, honako hauek **indartuz**:

- Ahal den neurrian, arriskuan dauden Nikaraguako eta Costa Ricako erakundeei, komunitateei eta kolektiboek laguntzen jarraitzea ahalbidetuko duten ekintzak.
- Nazioarteko babes-sareekiko loturak eta aliantzak, Nikaraguako giza eskubideen egoera ikusarazteko.
- NARE-Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa.
- Nazioarteko laguntza eta elkartasunerako beste tresna batzuk.

7 ERREFERENTZIAK

Nikaraguako Sexu Aniztasuna Elkarte (ADISNIC) eta Nikaraguako Gazte Plataforma Nazionala (PNJ). *Nikaraguako Estatuaren betebeharren betetze-mailaren ebaluazioa, Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren pean. Ordezko txostena. Aldizkako azterketa unibertsala - Nikaragua 2019ko abuztua.*

La Corriente elkarte feminista, Costa Rica – Latinoamerikako Gizarte Zientzien Fakultatearen laguntzarekin (FLACSO – CR). Diplomaduna: Demokrazia, herritartasuna, gizarte- eta genero-ekitatea. *Gazteen ahotsetatik posible den Nikaragua birpentsatuz. 2024ko maiatza.*

Nikaraguari buruzko giza eskubideen adituen taldea (GHREN). *Hezkuntzarako giza eskubideen, askatasun akademikoaren eta beste oinarrizko eskubide batzuen urraketak eta abusuak ikasleen, irakasleen, zuzendari akademikoen eta unibertsitateko beste langile batzuen aurka. 2024ko azaroa.*

Nikaraguari buruzko giza eskubideen adituen taldearen (GHREN) txostenak. Giza Eskubideen Kontseilua: (A/HRC/55/CRP.3) 2024ko otsailaren 29a. (A/HRC/55/27) 2024ko otsailaren 28a. (A/HRC/52/CRP.5) 2023ko martxoaren 7a. (A/HRC/52/63) 2023ko martxoaren 2a. (A/HRC/58/26). 2025eko otsailaren 24a.

Msc. Vlada Krasova Torres Colomer (Nikaraguako Errefuxiatu Politikoen Ligako kidea eta Escarlatas taldekoa). *Nikaraguako LGBTIQ+ pertsonen giza eskubideen egoera. 2025eko martxoa.*

VV.OO. *Inor ez da joaten nahi duelako. Nikaraguarren ahotsak erbestean. 2024ko iraila.*



nare

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA**
PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA
DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

2025eko apirila